**Edurne Urrutia Uriarte Bermeoko Udaleko KONTUHARTZAILEAREN eta Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN 26/2021 TXOSTENA**

| |
|---|
| **Gaia:** 2020ko aurrekontu parte-hartzailearen ondorioz kontuak emateko egindako informazio kanpainaren legezkotasuna<br><br>**Espediente tramitatzailea:** Alkatetza |

## Aurrekariak

**Lehena.-** 2020. Urteko aurrekontua onartu aurretik Udalak parte-hartzea egin zuen

**Bigarrena.-** 2020ko kontuak emateko informazio kanpaina egin da, eta, besteak beste, etxeetara informazioa bidaltzeko esku-orria diseinatu eta maketatu da eta esku-orriak banatu dira.

**Hirugarrena.-** Kontratua esleitzeko proposamena bideratu da eta proposamenak zerbitzuak burutu ostean bideratu da.

**Laugarrena.-** 2021eko maiatzaren 4an Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak kontratua ez esleitzeko proposamena egin du, abenduaren 29ko 29/2005 Legearen 4.1. artikuluaren kontrakoa izateagatik.

**Bosgarrena.-** 2021eko maiatzaren 27an Antolakuntza eta Teknologia Berrien saileko Teknikariak txostena egin du, ondorioztatuz dagokigun kasua udaleko lan dinamikaren baitan sartzen dela eta abenduaren 29ko 29/2005eko legearen xedapenarekin bateragarria dela, besteak beste.

**Seigarrena.-** Alkatetzak kontuhartzailearen eta idazkariaren txostena eskatu du proposamenaren legezkotasunari buruzkoa.

## Oinarri juridikoak

### 1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea(LILE)



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko Legea.
- Abenduaren 29ko 29/2005 Legea, Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzko Legea.

**2. Azterketa juridikoa**

Legezkotasunari buruzko zalantza sortu da 2021eko maiatzaren 4an Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2020ko kontuak emateko informazio kanpainaren kontratua ez esleitzeko proposamena egin duelako, abenduaren 29ko 29/2005 Legearen 4.1. artikuluaren kontrakoa izateagatik.

Lege horren 4.1. artikuluak zera dio hitzez hitz:

*1. No se podrán promover o contratar campañas institucionales de publicidad y de comunicación:*

*a) Que tengan como finalidad destacar los logros de gestión o los objetivos alcanzados por los sujetos mencionados en el art. 1 de esta Ley.*

*b) Que manifiestamente menoscaben, obstaculicen o perturben las políticas públicas o cualquier actuación legítimamente realizada por otro poder público en el ejercicio de sus competencias.*

*c) Que incluyan mensajes discriminatorios, sexistas o contrarios a los principios, valores y derechos constitucionales.*

*d) Que inciten, de forma directa o indirecta, a la violencia o a comportamientos contrarios al ordenamiento jurídico.*

Esan beharra dago Lege hori Estatuko Administrazio Orokorrari soilik aplikatzen zaiola baina hain justu ere 4. artikulua oinarrizkoa dela lege beraren 2. Azken Xedapenaren arabera.

Entzutegi Nazionalak 2008ko ekainaren 10ean 2008/105650 epaia eman zuen, epai horretan, 3. argudio juridikoan, zera jaso da:



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*"…*

*Finalmente, es cierto que el <u>artículo 4 de la Ley 29/2005 (EDL 2005/206607)</u> tiene el carácter de legislación básica, de conformidad con el <u>artículo 149.1.18 de la Constitución Española (EDL 1978/3879)</u>, estando por ello **obligadas todas las administraciones a sujetar sus regulaciones específicas sobre publicidad y comunicación institucional a las previsiones de dicho precepto**, pero dicha circunstancia no permite la aplicación del resto de las disposiciones recogidas de la <u>Ley 29/2005 (EDL 2005/206607)</u>, referida exclusivamente a la Administración del Estado, a las comunidades autónomas o a las entidades locales sin regulación específica sobre la materia, como parece sostener la parte recurrente.*

*…"*

Argi izanda 4.1. artikulua toki erakundeetan ere aplikagarria dela, aztertuko da kasu honetan, egindako publikazioan 4.1. artikuluan jasotako debekuak ematen badira edo ez:

***a) Que tengan como finalidad destacar los logros de gestión o los objetivos alcanzados por los sujetos mencionados en el art. 1 de esta Ley.***

*b) Que manifiestamente menoscaben, obstaculicen o perturben las políticas públicas o cualquier actuación legítimamente realizada por otro poder público en el ejercicio de sus competencias.* Ez da ematen

*c) Que incluyan mensajes discriminatorios, sexistas o contrarios a los principios, valores y derechos constitucionales.* Ez da ematen

*d) Que inciten, de forma directa o indirecta, a la violencia o a comportamientos contrarios al ordenamiento jurídico.* Ez da ematen

Beraz, "a" atala da kasu honetan aztertu behar duguna. Izan ere, beste ataletan ez dago zalantzarik.

Gai honen inguruan ezinbestekoa da 2010eko ekainaren 14ko Auzitegi Gorenaren 3715/2010 epaia lantzea (Errekurtso Zk. 4871/2009). Epai horretan lantzen da, batetik, ea oinarrizko artikulua izateak zer suposatzen duen eta, bestetik, zein motatako informazioa eman daitekeen:

*"…*

*A nuestro entender, no cabe esta interpretación, que se aparta absolutamente de la finalidad que persiguió el legislador al establecer esa prohibición y extenderla, mediante la atribución de carácter básico al precepto, a las Comunidades Autónomas. La exposición de motivos de la Ley 29/2005 , parte de la cual recoge la sentencia, señala claramente cuáles son los objetivos perseguidos. A saber: "(...) Debe ser un principio fundamental de la actividad comunicativa del Gobierno, a través de campañas institucionales, desligar la opinión política de la* ***información veraz y neutral sobre sus políticas públicas****. La publicidad y comunicación institucional deben estar al estricto servicio de las* ***necesidades e intereses de los ciudadanos****, facilitar el ejercicio de sus derechos y promover el cumplimiento de sus deberes, y* ***no deben perseguir objetivos inadecuados*** *al buen uso de los fondos públicos La utilidad pública como objetivo de estas campañas implica la* ***erradicación*** *de aquellas que tengan como finalidad* ***ensalzar la labor del Gobierno****. Se garantiza así que las campañas sirvan a sus destinatarios legítimos, que son los ciudadanos, y no a quien las promueve (...)".*

*A la vista de estos propósitos y de los criterios que para la interpretación de las normas jurídicas sienta el artículo 3 del Código Civil , la solución alcanzada por la sentencia se nos presenta como la única ajustada, tanto a las previsiones del legislador, como al sistema en que se integra la prohibición que nos ocupa e, incluso, al sentido común. Sentido común con el que pugna la tesis defendida por el motivo de que lo* ***prohibido*** *a la Generalidad de Cataluña es* ***ensalzar la labor del Gobierno de España.***

*No queda sino precisar, al igual que lo hace esta exposición de motivos y, también ha afirmado el escrito de interposición, que* ***los poderes públicos no sólo pueden sino que deben informar a los ciudadanos de los servicios públicos que prestan*** *y de todos aquellos extremos que sean necesarios para que ejerzan sus derechos y cumplan sus*



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

*deberes. Ahora bien, esa actividad **ha de ser puramente informativa, desprovista de todo matiz laudatorio** de la acción de esos poderes o de sus titulares. Y la pretensión de **destacar los logros** de la gestión realizada, advertida en esta campaña por la sentencia, en juicio cuya racionalidad no se ha desvirtuado, mejor dicho, que ha de confirmarse tras el examen de los materiales publicitarios obrantes en las actuaciones, la sitúa de lleno en el ámbito de la prohibición legal.*

*...:"*

Beraz, epaia oinarritzat izanda esan daiteke kasu honetan eman den informazioa:

- Egiazkoa eta neutrala dela
- Herritarren beharrei eta interesei buruzkoa dela
- Ez dela helburu desegokirik lortu
- Informazio hutsa dela, ñabardura laudagarririk gabea, eta ez duela Gobernuaren lana goraipatu
- Botere publikoek, ematen dituzten zerbitzu publikoen berri emateaz gain, informazioa eman behar dietela herritarrei

Zentzu horretan, berriz aipatu behar da Entzutegi Nazionalaren 2008ko ekainaren 10eko epaia, non ondorioztatzen den: "*Desestimar el recurso contencioso-administrativo núm. 528/2006, interpuesto el GRUPO MUNICIPAL DEL PARTIDO POPULAR DE GETAFE, representado por la Procuradora Dª MARÍA DEL MAR PRAT RUBIO, contra la desestimación por el Secretario de Estado de Comunicación del Ministerio del Presidencia de la solicitud de cesación inmediata de la campaña "1000 días de gestión Getafe, el compromiso de todos", promovida por el Ayuntamiento de Getafe.*"

Horretaz gain, esan beharra dago abenduaren 29ko 29/2005 Legearen ostean bi lege sartu zirela indarrean gardentasuna, informazio publikoa eta gobernu onaren printzipio eta arauak jasotzen dituenak eta Udalek erabat bete behar dituztenak: Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

buruzko Legea (LILE) eta estatu mailan aplikagarria den abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko Legea.

Lege bi horien hainbat artikuluetan jasotzen da Udalak daukaten eskubidea eta betebeharra Gardentasunaren, Informazio Publikoaren eta Gobernu Onaren inguruan.

Hain zuzen ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen (LILEren) 47.3 artikuluak gobernu irekiari buruz dio:

*3.– Lege honetan aurreikusitakoaren arabera partaidetzarako kanalak zehazteaz gain, gobernu irekia gauzatzeko bitartekoen helburua da* ***herritarrak modu sinesgarrian informatzea tokiko gobernuek nola betetzen dituzten euren eginkizunak, nolako politika publikoak abiarazten dituzten eta nola kudeatzen dituzten baliabide publikoak,*** *era horretara arduradun publikoen* ***kontuak ematea errazteko.***

Zentzu horretan, 47.4 artikuluan publizitate aktiboa, informazio publikoa eta herritarren parte-hartzea nozioen nondik norakoak jaso dira. Hain zuzen ere:

*b) Publizitate aktiboa: herritarrentzat interesa duen informazio publikoa* ***aldian-aldian, eguneratuta eta modu ulergarrian*** *publiko egitea, tokiko botere publikoek konpromisoak nola betetzen dituzten modu sinesgarrian jakitea erraztuz eta botere horien* ***kontu-ematea benetan gauzatuz,*** *interakzio komunikatiboko prozesu bat sustatu ahal izate aldera.*

50. artikuluak publizitate aktiboaren printzipio orokorrak direla eta zera xedatu du:

*1.– Herritarrek eta herritar-erakundeek tokiko gobernua eta administrazioa nola antolatzen den, zer eginkizun betetzen dituen, erabakiak hartzerakoan zer eremu eta politika lehenesten duen eta tokiko* ***zerbitzu publikoak kudeatzerakoan baliabideak nola esleitzen*** *dituen jakiteko interesgarri den informazio publiko oro, aldian-aldian eta*



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

*etengabe, eta **eskura dauden bideak erabiliz,** publiko egin beharrekoa da lege honen ondorioz, eta betebehar hori bere gain hartuko dute euskal toki-erakundeek.*

*2.– Publizitate aktiboaren arloko betebeharren helburua da, alde batetik, toki-erakundeen boterearen, jarduera politiko eta instituzionalaren, eta administrazio-jardunaren kontrola erraztea; eta, bestetik, ordezkari publikoek kontuak emango dituztela eta **herritarrek haien kudeaketa arakatzeko** aukera izango dutela segurtatzea.*

*3.– Gardentasun-betebeharrak, batez ere, informazio interesgarri guztia erakundearen webgunean edo egoitza elektronikoan argitaratuz beteko dira, hala dagokionean genero-ikuspegia txertatuz. Aurrekoa gorabehera, eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioa bermatze aldera, tokiko botere publikoek informazio hori **beste bide batzuen bitartez** ere zabaldu beharko dute, baliabide elektronikoetara jotzeko modurik ez duten herritarrek eta, batez ere, Interneten nabigatzeko baliabiderik, bitartekorik edo ezagutzarik ez duten pertsona edo kolektiboek ere izan dezaten haren berri. Pertsona eta kolektibo horiei guztiei, informazio hori eskuratzeko eta, beste pertsona edo kolektiboek bezalaxe, beren eskubideak baliatzeko behar dituzten publizitate aktiboko bitartekoak edo tresnak eskainiko dizkie administrazio publikoak, erabilgarri dituen baliabide teknologiko eta ekonomikoen barruan.*

Ildo horretatik, eten teknologikoa murrizteko, kontuan hartuta Bermeoko herriko aurrekontuaren prestakuntzan parte-hartzaile askok parte hartzen dutela ezagutza teknologikorik eta bitartekorik gabe, beharrezkoa egiten da urteko aurrekontu-kudeaketa ezagutarazteko beste bitarteko batzuk gaitzea.

Hori guztia dela eta, etxebizitzetara informazioa bidaltzea ahalbideratuta dago.

52.1 artikuluak, gardentasunari buruzko gutxieneko betebehar moduan jaso ditu hurrengoak, besteak beste:

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*c) Publiko egingo dira udaleko gobernu-plana, **agintaldiko plana edo jarduera-plana**, halakorik izanez gero, eta orobat, aldian-aldian, horien betetze-maila.*

*k) Antolamendu-egituren plan eta programak –beren xede zehatzak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako baliabideak eta epea identifikatuz–, eta **plan eta programon betetze-maila eta emaitzak,** zeinak aldizka ebaluatu eta argitaratu beharko baitira, toki-administrazio eskudunak zehazten duen eran, neurketa eta balorazioko adierazleekin batera.*

53.1 artikuluak, gardentasunari buruzko gutxieneko betebehar moduan ere jaso du hurrengoa:

*d) Herritarren partaidetzako prozesuaren txostena eta ondorioak, halakorik baldin badago.*

Kasu honetan honetan emandako informazioa 2020ko aurrekontuko parte-hartzeren ondorioz egindako ekintzei buruzkoa da. Izan ere, esku-orrietan zera jartzen da: … "Beharrezkoa izan zan 2020ko aurrekontua berrantolatzea, dokumentu honetan jaso doguzan hainbat proiektu aurrera atara ahal izateko, geure, bermeotarron, aurrean kontuan emoteko"… "Ekimen horreek, 2020ko aurrekontua exekutatzeari jagokonez bermeotarron lehentasunak zuzenean ezagutzeko Udalak 2019ko abenduan martxan jarri eban partaidetza-prozesuan herritarrok lehentasunezkotzat identifikatu genduzanak dira…"

Beraz, LILEren 53.1.d-ko betebeharra bete da.

Bestalde, abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko Legearen 5 eta 6. artikuluetan zera jaso da:

5.1. artikuluan zera jaso da: *1. Los sujetos enumerados en el artículo 2.1 publicarán de forma periódica y actualizada la información cuyo conocimiento sea relevante para*



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE ::
2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

*garantizar la transparencia de su actividad relacionada con el funcionamiento y control de la actuación pública.*

6.2. artikuluak horrela dio: *2. Las Administraciones Públicas publicarán los planes y programas anuales y plurianuales en los que se fijen objetivos concretos, así como las actividades, medios y tiempo previsto para su consecución. Su grado de cumplimiento y resultados deberán ser objeto de evaluación y publicación periódica junto con los indicadores de medida y valoración, en la forma en que se determine por cada Administración competente*

Lege honetako 10-3 artikuluak ere esaten du:

*"La Administración General del Estado, las Administraciones de las Comunidades Autónomas y de las ciudades de Ceuta y Melilla y las autoridades que integran la Administración Local* ***podrán adoptar otras medidas complementarias y de colaboración para el cumplimiento de las obligaciones de transparencia recogidas en éste capítulo"***

Horrekin lotuta, gaur egun indarrean dagoen aurrekontu-araudi espezifikoak ez du publizitateari buruzko ezer jasotzen aurrekontuak onartzean, betearaztean eta likidatzean, dagozkien aldizkarietan argitaratzeko betebeharra izan ezik. Eta hori logikoa da, kontuan hartuta araudi horiek orain arte aipatutako arau orokorrak garatu aurrekoak direla. Hori dela eta, aurrean esandako lege orokorretara jo behar dugu.

Aurrekontuen arloko gardentasun-betebeharrak betetzeko, komenigarria litzateke Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan agertzea zeintzuk izango diren herritarrei publizitatea egiteko erabiliko diren neurriak, beti ere, informazio ematean diskriminaziorik ez sortzeko helburua kontuan izanda.

Laburbilduz, lege horietan eskubideak ez ezik, betebeharrak ere jaso dira eta Bermeoko Udalak bidalitako esku-orriak eskubide eta betebehar horiekin bat datoz.

**Ondorioak**



CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5

Sinadurea eta datea
MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10

EXPEDIENTE :: 2021IDA_DEK0446
Datea: 16/03/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**Lehena.-** 2020ko aurrekontu parte-hartzailearen ondoriozko kontuak emateko egindako informazio kanpaina legezkoa da.

**Bigarrena.-** Kontratazio espedientea zerbitzua eman ondoren planteatu da. Beraz, kontratazioko prozedura ez da legez bideratu.

**Hirugarrena.-** Gardentasuna, informazio publikoa eta gobernu irekiaren xehetasunak arautzeko ordenantza bat onartzeko ATB teknikariaren proposamenarekin bat egiten da. Horretaz gain, espezifikoki aurrekontuen gaiarentzat, komeni da Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan gaia arautzea.

Hori da gure ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Alkatetzak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztuta datan

| Edurne Urrutia Uriarte | Jurdana Uriarte Lejarraga |
|---|---|
| Udal kontuhartzailea | Idazkari nagusia |

*Oh. Orri oinean sinatzaileak eta datak*




| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5 | Sinadurea eta datea<br>MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE-KONTUHARTZAILEA - 03/06/2021<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2021<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2021 14:50:10 | EXPEDIENTE :: 2021IDA_DEK0446<br>Datea: 16/03/2021<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

CSV: 07E50006E2CB00Z4R4A2M5R0P5